



IDNA-E LURRINAK

Koldo Mitxelena
BHI

Administrazio
eta kudeaketa
oinarriak

2 Batxilergoa

Taldeakideak
Ainara, Diego,
Danel, Iker eta
Eneritz


IDNA-E
TEAM

LURRINA
PERTSONALIZATUA

Aurkibidea

1. Gure enpresa
2. Gure helburua
3. Balioa
4. Segmentazioa
5. Elkartek
6. Irabazi iturriak
7. Kanalak
8. Harremanak
9. Baliabideak
10. Jarduerak
11. Kostuak
12. Ondorioa
13. Bibliografia





1.Gure enpresa

IDNA-E Team-en, lurrinen mundua berrasmatzen dugu Adimen Artifizialaren (AA) bidez. Pertsona bakoitzak bere izaera eta estilo propioa duela sinisten dugu, eta horregatik sortzen ditugu guztiz pertsonalizatutako usainak, norberaren nortasuna, oroitzapenak eta gustuak islatzen dituztenak.



Gure enpresa sozietate mugatua da, bost bazkideena.

Gure AA-k zure lehentasun olfatiboak eta aromarekin duzun lotura emozionala aztertzen ditu, eta zu bakarrik zaren bezalako lurrin berezi eta errepikaezina diseinatzen du. Gure formulak kalitate handiko osagaiekin egiten dira, oreka perfektua lortzeko eta esperientzia eksklusibo bat sortzeko.

Oraingoz, Donostian gaude, baina etorkizunean gure esperientzia ahaztezina Espainiako gainerako lurraldeei eskaintzea espero dugu. Hala ere, gure zerbitzuak erabil ditzakezue gure webgunean.

IDNA-E Team ez da lurrin-denda arrunta

Zure usain-identitatea eraikitzen dugu, zure istorioa botila batean bilduz.

Zure esentzia aurkitu. Zure benetako bertsioa ezagutu.

Ongi etorri etorkizuneko lurrindegira!

2.Gure helburua

IDNA-E Team-en helburu nagusia pertsona bakoitzari bere benetako esentzia adierazten laguntzea da, adimen artifizialaren bidez sortutako lurrin pertsonalizatuen bitartez. Teknologia aurreratuak eta sormen olfatiboa uztartuz, erabiltzaile bakoitzaren nortasun, oroitzapen eta gustu aromatikoak ulertzen dituen sistema bat garatzen dugu.

Gure xedea ez da soilik lurrin bat eskaintzea, baizik eta esperientzia berezi eta esanguratsu bat sortzea: norberaren identitatea botila batean islatzea. Lurrindegiaren etorkizuna hurbiltzen dugu, aukera emanaz jendeak bere aroma propioa diseinatu eta munduarekin partekatzeko.

IDNA-E Team:

Zure usaina. Zure istorioa. Zure identitatea.

3. Balioa

Gure produktua **berrikuntza** berri bat izango da. Esperientzia pertsonalizatua eskainiko dizu, eta horri esker, lurrinarekin identifikatuko zara, zure gustokoa egingo duzulako. Honela, konfiantza handiagoa izango duzu zure buruarengan.

Gainera, **esklusibotasuna** emango dizugu, hau da, beste inork ez du zure lurrin berbera izango. Pertsona bakoitzak usain bereziak izango ditu haien elementu gustokoekin, hau da, batek bainilezko lurrina egingo du eta besteak izpiliku usainarekin egingo du.

Bestalde, kontuan hartuta gure prezioak, pertsona gehienentzat **eskuragarriak** izango dira produktuaren kalitatea jaitsi gabe. Hau da, edonork sortu dezake bere lurrina.



4.Segmentazioa

Gure produktua lurrinak gogoko dituzten pertsonaei zuzenduta dago, eta horretaz gain, esperientzia eta produktu eksklusiboak eskuratu nahi dituztenentzat.

Honela, bakoitzak lurrin pertsonalizatu bat izango du, osagaiak aukeratuz, adimen artifizialak gidatutako galdetegi baten laguntzaz edo gure saltzaileen aholkuak jarraituz. Esperientzia bakarra eskainiz.



5.Elkarteak

Gure proiektua aurrera eramateko hiru bazkide mota nagusi beharko ditugu. Lehenik, aroma eta lehengai hornitzaileak, lurrinaren oinarriak osatzeko: olio esentziak, base aromatikoak eta botilak. Hauek gabe ezingo genuke kalitatezko produkturik sortu.

Serviaroma Navarrari esker lehengaiak eukiko ditugu.



Bigarrenik, bazkide teknologikoak, gure adimen artifiziala garatzeko: datuen azterketa, algoritmoak fintzea eta plataforma ondo funtzionatzea ziurtatzen dituzten enpresa edo profesionalak. Hauek izango dira gure zerbitzuen “motorra”.



Azkenik, diseinu eta marka kolaboratzaileak, gure botilen irudia, packagin-a eta erabiltzailearen esperientzia zaintzen laguntzen dutenak. Hauek egingo dute produktua erakargarri eta berezia izatea. Bazkide bakoitza beharrezkoa da: batzuk produktuaren kalitatea bermatzeko, beste batzuk teknologiak funtziona dezan eta azkenik gure marka bereizteko. Guztien ekarpenekin, IDNA-E Team proiektua posible izango da.



Albaren enpresari esker packagin paregabea izango dugu.

6.Irabazi iturriak

Lehenik eta behin, **harpidetza** bat izango dugu, non hilero edo hiruhilero gure bezero fidelenak tasa bat ordainduko diguten, honela beherapenak eta osagai eksklusiboak (denbora limitatua egongo direnak) besteek baino lehen erabiltzeko aukera izango dute.

Bestalde, **erabileragatiko saria** aplikatuko genuke, horri esker bezeroek nahi dutenean lurrina ordainketa puntual baten bidez erosteko aukera izango lukete.


Azkenik, gure teknologia propioaren bidez, **lizentziak** erabiliz beste hainbat markeri edota enpresei eskainiko diegu, diru-sarreraren kopurua handituz. Komisioak ere nabariak izango lirateke irabazietan, gure lurrinak saltzen dituzten establezimenduekin lankidetzan arituz lortuko ditugunak.



7.Kanalak

Gure perfume-dendarentzat funtsezkoa da bezeroengana iristeko kanal egokienak aukeratzea. Horregatik, **bi salmenta-bide** nagusi erabiliko ditugu: denda fisikoa eta online denda. Bi aukerak uztartuta, bezeroek gure produktuak erraz eta modu erosoan eskuratu ahal izango dituzte.

Lakolmena enpresari esker gure webgunea sortuko genuke.



Horrez gain, gure lurrinak beste denda espezializatu edo **plataforma digital** batzuetan ere eskaintzea aztertuko dugu. Horrela, gure markaren presentzia handitu, publiko zabalago batera iritsi eta salmenta-aukerak areagotuko ditugu. Kanal desberdinak konbinatzeak gure denda ikusgarriagoa eta eraginkorragoa izatea ahalbidetuko du.

8. Harremanak

Gure enpresan bi harreman mota eskainiko ditugu. Lehenik, **laguntza pertsonala**: dendan bertan bezeroei aholku pertsonalizatuak emango dizkiegu, haien gustu eta beharren arabera lurrin egokiena aukeratzen laguntzeko. Zerbitzu honek bezeroengan leialtasuna, konfiantza eta esperientzia berezia sortzen ditu.

Bigarrenik, **laguntza automatizatua** erabiliko dugu. Adimen Artifizialak oinarritutako tresnek bezeroei lurrin pertsonalizatua azkarrago eta erosoago aukeratzen lagunduko diete. Teknologia honek esperientzia optimizatu eta erabakia erraztuko du.

Horrez gain, **sare sozialak** erabiliko ditugu gure produktuen berriak eta eduki interesgarria partekatzeko. Instagram, TikTok eta Youtube bidez bezeroekin harreman zuzena eta dinamika mantenduko dugu.



Gure bezeroen iritzia oso garrantzitsua da guretzat! Zure beharrak modurik onenean asetu nahi ditugu, eta, horregatik, formulario bat dugu zure gustuei eta beharrei buruz gehiago jakiteko.

LORTU ZURE FRAGRANTZIA PROPIOA!

Denda honetan zure lurrina aurkitzen lagunduko dizugu, zure usaina, inoiz ahaztuko ez duzun esperientzia batekin.

1. Zein usain mota gustatzen zaizu egunerokoan? *

- ☐ Freskoak eta arinak
- ☐ Gozoak eta gourmand motakoak
- ☐ Zitrikoak eta energetikoak
- ☐ Egur-usainak eta intentsuak

2. Zein ingurune iruditzen zaizu atseginena? *

- ☐ Hondartza edo itsas haizea
- ☐ Kafetegia edo okindegia
- ☐ Lorategia edo landa
- ☐ Basoa edo mendia

3. Zein sentrazio helarazi nahi duzu zure lurrinak? *

- ☐ Garbitasuna eta freskotasuna
- ☐ Gozoa eta goxotasuna
- ☐ Bizitasuna eta energia
- ☐ Dotorezia eta misterio pixka bat

4. Zenbateko intentsitatea gustatzen zaizu lurrinean? *

- ☐ Oso leuna
- ☐ Leun-ertaina
- ☐ Ertain-indartsua
- ☐ Oso indartsua

5. Zein lurrin mota erabiltzen duzu gehien? *

- ☐ Lore-usainak
- ☐ Fruta-usainak
- ☐ Zitriko-usainak
- ☐ Espeziatuak edo orientalak

8. Nola deskribatuko zenuke zure nortasuna? *

- ☐ Lasai eta erlaxatua
- ☐ Erromantikoa eta sentikorra
- ☐ Alaia eta dinamikoa
- ☐ Sofistikatua eta segurua

9. Zertarako erabiliko duzu batez ere lurrin pertsonalizatu hau? *

- ☐ Eguneroko erabilerarako
- ☐ Zita edo momentu berezietarako
- ☐ Lana edo ingurune profesionala
- ☐ Gaueko ekitaldietarako

10. Nolako esperientzia bilatzen duzu zure lurrin perfektua usaintzean? *

- ☐ Fresko eta arin sentitu
- ☐ Epeltasuna eta goxotasuna sentitu
- ☐ Motibatuta eta aktibo sentitu
- ☐ Dotore eta bakarra sentitu

9.Baliabideak



Gure enpresako **baliabide nagusiak** hiru multzotan banatzen dira: fisikoak, giza baliabideak eta ekonomikoak. Lehenengo hauetan perfumeak sortzea eta saltzeko beharrezko elementuak nabarmentzen dira: denda eta tailer modura erabiliko den lokala, usain-konposatuak eta lehengai aromatikoak, ontzi eta etiketa materialak, eta eskaerak kudeatzeko teknologia, ordenagailuak esaterako.



Giza baliabideei dagokionez, gure balio bereizgarri handienak osatzen du, hau da, formulazio eta diseinu propioak, taldearen sormena eta bezeroei zerbitzu pertsonalizatua emateko gaitasuna. Taldeko kide bakoitzak **rol ezberdinak** izango ditu, gure artean osagarriak izanez: batek usain konbinazio teknikoak landuko du, beste batek marketin eta komunikazio arloetan arituko da, etab.



Azkenik, **finantza baliabideak** proiektuaren oinarri ekonomikoa dira: hasierako inbertsioarako taldearen aurrezkiak, banku maileguak, eta lehen salmentatik lortutako irabaziak berrinbertitzeko konpromisoa.

Ekinn+ Donostiako udalak proiektu berritzaileak laguntza 10.000€

10. Jarduerak

Gure negozioaren **jarduera nagusiak** hauek izango dira: usain gomendioak sortzen dituen adimen artifiziala garatzea eta eguneratzea, baita erabiltzen dugun esentzien datu-basea handitzea ere.

Bezeroei **esperientzia gidatua** eskaintzea ere funtsezkoa da, usain-probak eginez eta haien gustuen arabera orientazioa eskainiz. Horren ondoren, perfume pertsonalizatuen nahasketa, ekoizpena eta kalitate kontrola egingo dira, produktu bakoitzak estandar egokiak betetzen dituela ziurtatzeko.

Horrez gain, esentzien, ontzien eta bestelako materialen erosketak eta biltegiatzea kudeatu beharko dira, **hornidura egokia** mantentzeko.

Marketin lana eta sare sozialen erabilera ere jarduera garrantzitsuak izango dira gure marka ezagutarazteko eta bezero berriak erakartzeko. Dendan bezeroari **arreta pertsonala** emango zaio, eta online plataformetan laguntza automatizatua eskainiko da erosketak errazteko.

Amaitzeko, eguneroko logistika, segurtasun kosmetikoa eta araudiaren betetzea bermatzea izango da gure jardueren parte.



11.Kostuak

Lehenik, **kostu finkoak**, ekoizpena handitu arren, gastu batzuk ia berdin jarraitzen dute. Hau da, tailerraren alokairuak, tresneria, langile finkoen soldatak, markaren garapena...

Kostu aldagarriak begiratuta, eskaera kopuruarekin lotuta doaz, hala nola, lehengaien kostua (esentziak, olioak, alkohola, ura, ontziak, etiketak), pertsonalizazio prozesua (etiketak, ontzi bereziak, diseinu eksklusiboak), *packaging* kostuak eta komisioak

Eskala ekonomikoak kontuan hartuta, ekoizpena handitzean, unitate kostua jaitsiko da. Hau da, produktuaren deskontuak, publizitatearen prezioa txikiagoa izango da marka handiagoa izatean...

Azkenik, **hedapen ekonomikoak**, baliabide berdinak erabil daitezke produktu gehiago edo zerbitzu osagarriak sortzeko, hala nola, perfume pertsonalizatuen zerbitzutik abiatuta, kandela aromatikoak edo gela-usainak sortzea, lehengai eta hornitzaile berdinak erabilita.

Hona hemen gure aurrekontua: 2025 eko aurrekontu honek gure aurreikuspena aurkezten du gure gastuen eta sarreraren perspektiba bat izateko.

	A	B	C	D
1	SARRERAK	URRIA	AZAROA	ABENDUA
2	Salmentak	10.600€	12.000€	15.000€
3	Aportazioak	20.000€		
4	Diru-laguntzak	10.000	0	0
5	Mailegua	90.000		
6	Sarrerak guztira	130.600€	12.000€	15.000€
7				
8	GASTUAK			
9	Soldatak	10.000€	10.000€	10.000€
10	Lizentziak	5.000€	0	0
11	Makineria	25.000€	0	0
12	Lehengaiak	4.000	4.000	4.000
13	Programa AI	70.000€	0	0
14	Alokairua	5.000€	5.000€	5.000€
15	Seguroa	450€	450€	450€
16	Zergak	1.590€	1.590€	1.590€
17	Ofizina	0	0	0
18	Gizarte segurantzaz	3.167€	3.167€	3.167€
19	Kapital sozial minimoa	3.000€	0	0
20	Gestoria	200€	0	0
21	Merk. Erregistroa	90€	0	0
22	Notaritza	120€	0	0
23	Izenaren ziurtagiria	70€	0	0
24	Gastuak guztira	127.687€	24.207€	24.207€



LURRINA
PERTSONALIZATUA

12. Ondorioa

IDNA-E Team-ek lurrinen mundua berrasmatzen du, adimen artifizialaren bidez esperientzia pertsonalizatu eta bakarra eskainiz. Produktu honek nortasun, oroitzapen eta gustu aromatikoen isla erabiltzen ditu, bezero bakoitzak esperientzia errepikaezina bizi dezan.

Teknologia aurreratua, kalitate handiko osagaiak eta kanal anitzeko estrategia erabilita, enpresak etorkizunean hazteko eta bezero leialak izateko potentzial handia izanik. Azken finean, IDNA-E Team-ek lurri bidezko identitate pertsonalaren balioa eta berrikuntza konbinatzen ditu, honela merkatuan konpetentzia murriztuz eta desberdintasun nabarmena lortuz. Negozio plana garatzea ikaskuntza esperientzia oso aberasgarria izan da guretzat. Hau garatu dugun bitartean, ideia sortzaile bat egituratutako negozio proiektu bihurtzen ikasi dugu, merkatuaren, bezeroen eta berrikuntzaren balioa eta garrantzia ulertuz. Gainera, adimen artifizialaren potentziala eta pertsonalizazioak bezeroen esperientzian duen eragina modu sakonago batean ezagutu dugu.

Azkenik, talde-lanaren eta erabaki estrategikoen beharra ulertu ditugu, etorkizuneko proiektuak burutzeko oinarri sendoak eskuratuz.

13.Bibliografia

https://diariovasco.startinnova.com/curso/bloque_1/paso3/paso_3_1.php?idiona=eu

<https://www.donostia.eus/>

<https://brand24.com/blog/es/software-ai/>

https://pymes.mapfre.es/?utm_campaign=mapfrees_search&origen=PSEMG&utm_source=googleads-search&utm_medium=search&utm_term=gen&gclid=aw.ds&&utm_campaign=mapfrees_search&origen=PYMSEMG&utm_source=googleads-search&utm_medium=search&utm_term=gen&ads_rl=9152151472&&&&gclid=aw.ds&gad_source=1&gad_campaignid=21834227279&gbraid=0AAAAADiJptyYNXhdM_COzFAzHmHv-qTfl&gclid=EAAlaIQobChMItaeXgrG_kQMVuTYGAB2coSLrE_AAYyAAEgK-fvD_BwE

<https://www.serviaromanavarra.com/>

<https://albaren.com/>

<https://asana.com/es/resources/business-model-canvas>

Fundamentos de Administración y gestión 2. Bachillerato MCGraw Hill Education
Liburua

